

Pobreek zergatik ematen diote botoa eskuinari?

Herritar aurrerazaleak etsipenez berresten du hauteskunder hazte: bere inguruan bizi ezin direlako kexu ari diren herritar xumeek boza ematen dietela aberatsenei zergak kentzen dizkieten politikariei. Fenomeno zaharraren osagai berriak aztertu ditu AEBetan Thomas Frank historiagile eta kazetariak eta Serge Halimik berridatzi Europatik.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

THOMAS FRANK HISTORIALARI ETA kazetari iparramerikarra (Kansas City, AEB, 1965) izkribu bikainak argitaratua dago *Harper's Magazine*, *The Wall Street Journal* eta *Le Monde Diplomatique*en. Egin dituen bederatzia liburu nabarmenetatik gaztelaniara itzulita daude, guk dakigula, kontra-kulturaren erradiografia den “*La conquista de lo ‘cool’*”, “*Pobres magnates*” eta “*¿Qué pasa con Kansas? Cómo los ultraconservadores conquistaron el corazón de EE.UU.*”.

Azken hau argitaratu berri diote frantsesez (“*Pourquoi les pauvres votent à droite?*”), hitzaurrea egin diolarik *Le Monde Diplomatique*eko zuzendari Serge Halimik. “Thomas Frankek —dio honek hasieran— sorterri duen Kansasen zer gertatu zen aztertu du. Ikusi baitu egia bilakatzen kontserbadoreen ametsa: langileriaren zati batek eman die ahalmen politikoa aurretik obreroek nekez lortutako babes sistema suntsitzeko”. Frankek Kansasen deskribatua Frantzia ere —eta Espainian gehitu genezake guk— aplikatzeko moduko dela azaltzen du Halimik.

Frankek aipatu ditu, noski, azalpen erlijioso edo kulturazkoak, talde sozial baten barruan zatiketarik eragin ditzaketanak: abortoa, homosexualen ezkontza, eskoletako otoitza, heriotza zigorra, armak edukitzeko askatasuna, pornogra-

fia, gutxiengoak, immigrazioa...

Baina, beste hau ere badago: kapitalismo berriak eragindako segurtasun ekonomikorik ezak eraman ditu proletario eta klase ertainetako asko segurtasuna beste nonbait biltzera, moralaren alorrean. Langile eta enplegatuok Errepublikarrei emango diete botoa hauek trebezia beren kontserbadorismoa *balioen* eremuan kokatzea lortu dutelako.

“Pentsio funtsekin espekulazioa eginez aldi berean abortuaren kontra egon daiteke. Eskuinak orduan bi alorretan irabazten du, tradizioarenean eta liberalean”, laburbildu du Halimik. Langileen lehengo lorpenak aurkeztuko dira garai nahasi batek utzitako zaharkeriatzat, iruzurra baimentzen dutenak, nagikeria, diru-laguntzetatik bizitzea.

Lehen osagaia, balio erlijiozkoe-na, ez da AEBen berezitasuna. Zer kontatuko digute gogozko edo derrigorrezko espainoloi, hamabostean behin kardinal batek ez bada apezpikuak gerra zibilarekin berriz mehatxatzen gaituztenoi. Baina laiotasuna ikurtzat daukan Frantzia ere mamitu da.

Nicolas Sarkozyk 2004an “*La République, les religions, l’espérance*” liburuan dio: “Azken urteotan garrantzia handiegia eman zaie soziologiako gaiak, gutxiegi baloratuz erlijioa, izpiritua (...) Katekesiak moralaren zen-

“*Cathosavecsarko*” izen iradokitzailea (*Catholiques avec Sarkozy* esaldiaren laburdura) daukan webgunean daukate eskegirik 2012ko maiatzean, Frantziako lehendakari-tzarako kanpaina betean, azkenean galtzaile atera zenari egindako elkarrizketa hau. Lerroburua euskaratu daiteke “Nire balioak Frantziarentzako” bezala “Frantziaren aldeko nire balioak”. Sarreran diote Alexis Brézet eta Karl Meeuzek: “Lana, erantzukizuna, autoritatea: Errepublikako lehendakariak ezarri ditu kanpainaren oinarriak. Homosexualen arteko ezkontzaren eta eutanasiaren kontrarioa, iragartzen du hezkuntzaren erreforma handi bat eta aurrekusten erreferendum bat langabetuen diru-laguntzaz eta immigrazioaz”. François Hollandek irabazi arren, eskuinaren programak aurrera dirauela ikusi da hilabete gutxiren buruan. Ezkerra beldurturik bozemaileak beldurtuko ote zaizkion, eskuina gero eta konplexu gutxiagorekin.

tzua eman die belaunaldi askori. Erlijioa irakasten zen baita familia sinesgabeetan ere. Balio horiek oreka ematen zioten gizarteari”.

Negarrez bildua barrez jan

Kansaseko eta oro har AEBetako gizartearen eskuineratzea 1960ko hamarkada bukaerako krisian gertatu zen. Ordura arte balio kolektiboen eta Estatuarekiko itxaropenak —azken finean honek gaingintu zuen 1929ko krisia, II. Mundu Gerran garaitu nazismoa, komunismoari hortzak erakutsi mundu osoan...— izoztu egin ziren. Nazioartean konkurrizko arazoak aurkitu zituzten yankien produktuek, lanpostuak urrutira joaten hasi, auzuneetako karriketan istilu larriak gertatu... eta segurtasunik eza obsesio bihurtzen hasi zen.

1969tik 2005era bitarteko 36 urteetatik 24tan agintean egon da eskuina AEBetan. Estatuaren gainerako mekanismoak ere kontrolpean dauzka. Baina ez du sekula aski, eta lortu du herritar askoren artean pasaraztea bere diskurtso biktimista: eskuindarrei entzunez badirudi agintean ezkerra dagoela eta beraiek oposizioan.

George W. Bush, AEBetako presidentearen semea eta senadore baten biloba, kexu zen New Yorkeko *establishment*ak mespretxatzen



omen zuelako. 29 urterekin Frantziako hiri aberatsenetako baten alkate izaten hasi eta Errepublikako kargu guztiak eduki dituen Sarkozy frantses txiroei esango die eliteak kontra dauzkala.

Dio Halimik: “Eskuinaren erre-zeta zaharra darabil: interes ekonomikoez ez hitz egitearren —ondo erabakita, jende gutxi batzuenak defenditzen baititu— hitz eta pitz aritu behar du balioez, kulturaz eta jarrererez: ordena, autoritatea, lana, meritua, moralitatea, familia”.

Nork jarri ditu arriskuan ordena, autoritatea, lana, meritua, moralitatea eta familia? 1968ko maiatz hark. Berrito Sarkozy: “Aldarrikatu zuten dena zela libre, agintea bukatua zela, fini edukazioa, fini errespetua,

jadanik ez zegoela ezer handirik, ezer sakraturik, ezer miresgarririk, araurik ez, ezta debekurik ere (...) Lanaren krisia ezer baino lehen krisi morala da, eta horretan erantzukizun handia dauka 68ko maiatzak”.

Dena ez da, hala ere, ideologia. Aldaketa soziologiko eta antropologiko sakonak gertatu dira AEBetan bezala Europan. Obroeroen multzoak ahuldu egin dira, multzoa ahultzean nor bere etorkizunaz modu indibidualistagoan egiten hasi kalkuluak. Aukerak nahi ditu bakoitzak, bere meritua onar daitezen, bere lanaren balioa aitortu. Lana beltz egiten duen arren ez zaio behar bezala ordaintzen.

Obrero askoren bizimoduak langabetuen eta etorkinenaren

gero eta antza handiagoa dauka. Eta oldartzen dira: “Eskola edo bizilekua aukeratzeko eskubidea nahi dute, txarragoak ez dituzte nozitu nahi (...). Aberatsen pribilegioak hain urrun ikusiz, ez dute haietan amets ere egiten. Eten ekonomikoa erroa ez da hainbeste aberatsen eta pobreen edo kapitalisten eta obroeroen artekoa; gehiago da soldatapekoen eta dirulaguntzetatik bizi diren artekoa. Zuriak eta gutxiengoak, langileak eta iruzurgileak”.

Ondo saldu du eskuinak dirulaguntzetatik *bibalapepa* bizi den familiaren ipuina. Ronald Reaganek asmatu zuen subentziotan urtean 150.000 dolar pilatzen ei zuen etxe-koandrea. Jacques Chiracek hilabetean estatuari 7.500 euro osten zizkion aita familiako alferra. Sarkozy 2006an abisatu zuen txalo artean: “Besteren lanetik bizi nahi duten horiei (...) ezer egin gabe dena nahi duten horiei, nik esaten diet ez dau dela behartuta gure lurtean bizitzera”. Alde hemendik, kapar horiek! Alferkeria, dirulaguntzak eta etorkinak, Euskal Herrian ere funtzionatzen du koktelak.

Eta funtzionatzen du, gogorazten du Halimik, jende xehearen anti-intelektualismoak baduelako sustraia: mundializazioak beste asko baino hobeto tratatu ditu *ikurren erabiltzaileak*: idazleak, abokatuak, arkitektoak, bankariak, kazetariak. “Azken hauek lezioak ematen has-tean irekitasunaz, tolerantiaz, ekologiaz, bertuteaz, eltzea lehertzen da”. Buruarekin lan egiten dugunon kontra. ■





ZINKUNEGI OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com

